

KUTXATILAK ESKURATZEKO ETA BERRITZEKO ARAU OROKORRAK

Honen bidez, aurtengo ikasturterako Bilboko Ingeniaritza Eskolak kudeatutako kutxatilen eskuratzea, berritzea eta kutxatila aldaketa-eskaera egiteko arauak ezarri egiten dira.

1. KUTXATILEN ESKURATZEA

- 1.1. Zerbitzu hau Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasleentzako dago eskuragarri, eta bere Ikasle Kontseiluak kudeatu egiten du.
- 1.2. Kutxatilen erreserba-epemuga ez da lauhilabete bakoitzeko 2. astea baino lehenago hasiko. Kutxatilen mailegua hurrengo web-orriaren bitartez burutuko da: <http://eibikaslekontseilua.eus>.
- 1.3. Kutxatilak esleitu egingo dira eskaintza agortu arte edo eskuratze-epemuga bukatu arte. **Eskuratze-epemuga hau Ikasle Kontseiluak ezarritakoa izango da eta eskaerak soilik epe honen barruan egin ahal izango dira.**
- 1.4. Kutxatilen erabilera partekatzea baimentzen da, baina kasu honetan pertsona bakar bat izendatuko da erabiltzaile moduan, eta beraz pertsona erabiltzailea izango da kutxatilaren erantzule bakarra ondorio **GUZTIETARAKO**.
- 1.5. Behin ordainketa eta beharrezko kudeaketak eginda (*eskuz sinatzea* edo Ikasle Kontseiluak adierazitako aplikazioaren bidez sinatzea eta kontratua behar bezala betetzea), erabiltzaile bakoitzak **bere giltzarrapo partikularra** erabili beharko du esleitutako kutxatila itxita mantentzeko. Ikasle Kontseiluak ez du inola ere giltzarrapoa emango. Erabiltzaileak **giltzarrapoa ekarri beharko du entrega egunean**; erabiltzaileak giltzarraporik ez badu, kutxatila Ikasle Kontseiluaren esku jarraituko du.

2. LAUHILABETEKO MAILEGUA

- 2.1. Lehen lauhilabeterako bakarrik mailegatu diren kutxatilen erabiltzaileak Ikasle Kontseiluari itzuli beharko dizkio bigarren **lauhilabeteko lehenengo astean, Ikasle Kontseiluak ezarritako**

epemugan.

- 2.2. Bigarren lauhilabeterako mailegua berriztatu nahi izanez gero, ezarritako epemuga izango du Ikasle Kontseiluari jakinarazteko eta beharrezko kudeaketak burutzeko (*eskuz sinatzea* edo Ikasle Kontseiluak adierazitako aplikazioaren bidez sinatzea eta kontratua behar bezala betetzea).
- 2.3. Bigarren lauhilabeteko lehenengo astean Ikasle Kontseiluari ez itzulitako kutxatilik kutxatilik hustu egingo dira laugarren klausulak deskribatzen duen moduan.

3. FIDANTZA

- 3.1. Kontratu honen bitartez 10 €-tako ordainketa onartu egiten da maileguaren fidantza moduan. Fidantza hau itzuli egingo da zazpigarren klausulan deskribatutako betebeharrak betetzen badira.

4. KUTXATILEN HUSTEA

- 4.1. **Bigarren lauhilabeteko lehenengo astean eta 2024-ko Uztailaren 1-etik aurrera**, Ikasle Kontseiluak ez itzulitutako kutxatilik zizailatu egingo ditu kutxatila hauek husteko eta bere egoera berrikusteko. Kasu honetan **fidantza eta zizailatutako giltzarrapoaren zenbatekoa ez dira itzuliko**.
- 4.2. Ezarritako epemuga hauen ondoren jasotako materiala zaborrara botako da edo ongitzari emango zaio. Material elektronikoa edota balio handiko materiala gordeko dira bakarrik, eta Ikasle Kontseiluaren galdutako gauzen arloan gordeko dira urtebetez.

5. ENTREGA EPEAK ETA ORDUTEGIA

- 5.1. **Kutxatilen entrega epeak eta ordutegia Ikasle Kontseiluak zehaztuko ditu.**
- 5.2. Pertsona interesdunak egun horietan joaterik ez badu, hirugarren pertsona bat bidali dezake ordezkari gisa, betiere zehaztutako ordutegian eta justifikante sinatu batekin (dokumentu honen bukaeran ematen dena), interesduna eta hirugarren pertsonaren sinadura duen kontratu betearekin batera.
- 5.3. Interesdunak ordezkaria aurkitu ezin badu, mezu elektronikoa bat bidali beharko dio Ikasle Kontseilura entrega epea hasi baino 24 hordu lehenago, kudeaketa egin ahal izango duen data eta ordutegia adieraziz.

Gogoratzten dugu ez direla entregarik egingo zehaztutako epe eta ordutegietatik kanpo edo intereduna eta Ikasle Kontseiluaren artean adostutako datatik kanpo.

5.4. Epe eta ordutegi zehaztuetan, interesdunak edo bere ordezkariak Ikasle Ordezkaritzatik (S1G4 1. Eraikinean eta P1I21 2. Eraikinean) pasatu beharko dira beharrezko kudeaketak egiteko. Kutxatilik Ikasle Kontseiluak esleituko ditu.

6. ITZULTZE EPEAK ETA ORDUTEGIA

6.1. Kutxatilen itzultze epeak eta ordutegia Ikasle Kontseiluak zehaztuko ditu.

6.2. Itzultze epeak honako hauek izango dira:

- Lehenengo lauhilabetean mailegatutako kutxatilen kasuan, bigarren lauhilabeteko lehen astean; epe eta ordutegi zehatzak Ikasle Kontseiluko komikabideetan jakinaraziko dira data hurbiltzen den heinean.
- Urtebetez edo bigarren lauhilabetean mailegatutako kutxatilen kasuan, selektibitate froga egiten den astean; epe eta ordutegi zehatzak Ikasle Kontseiluko komikabideetan jakinaraziko dira data hurbiltzen den heinean.

6.3. Pertsona interesdunak egun horietan joaterik ez badu, hirugarren pertsona bat bidali dezake ordezkariatzat, betiere zehaztutako ordutegian. Interesdunak ordezkaria aurkitu ezin badu, mezu elektronikoko bat bidali beharko dio Ikasle Kontseilura entrega epea hasi baino 2 egun lehenago, kudeaketa egin ahal izango duen data eta ordutegia adieraziz.

6.4. Epe eta ordutegi zehaztuetan, interesdunak edo bere ordezkariak Ikasle Ordezkaritzatik (S1G4 1. Eraikinean eta P1I21 2. Eraikinean) pasatu beharko dira beharrezko kudeaketak egiteko.

6.5. Erabiltzaileak Ikasle Kontseiluak zehaztutako data eta ordutegietan beharrezko kudeaketak egitera etortzen ez bada edo etorri ahal izan ezean Ikasle Kontseiluari jakinarazi ez badio, beharrezko kudeaketak egitera etorri daiteke 4.1 atalean deskribatutako epea bukatu arte. Kasu honetan fidantza zenbatekoa ez zaio itzuliko erabiltzaileari.

7. ERABILTZAILEAREN ERANTZUKIZUNAK

7.1. Erabiltzaile bakoitzak Ikasle Kontseiluak zehaztutako entrega eta itzultze data eta orduetan Ikasle Kontseiluko bulegoetara etortzeko erantzukizuna du, bostgarren eta seigarren klausuletan ageri diren salbuespen kasuetan izan ezik.

- 7.2. Ikasle Kontseiluak ez da kutxatilen edukien ezta edozein ebasketa edota edonolako gertakarien aurrean erantzulea izango.
- 7.3. Erabiltzaile bakoitzak ardura izango da mailegu-aldian bere leihatilaren eta bertan dagoen espazioaren egoera ona mantentzearen erantzule izango da, espazio hori eta bertan dagoen edozein objektu ondo kontserbatzea pertsona horren erantzukizun bakarra izango dela ulertuta.
- 7.4. Erabiltzaile bakoitzaren ardura izango da armairua giltzarrapoz itxita edukitzea, harekin elkarreragiten ez den bitartean.

8. ARAUEN IRISMENA ETA ONARTZEKO ESKUBIDEA

- 8.1. Ikasle Kontseiluak edozein ikasleri kutxatila bat EZ alokatzeko eskubidea izango du, alde aurretik ikasle honek egindako Ikasle Kontseiluak eskainitako zerbitzu honen edo Ikasle Kontseiluak edo Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako bestelako zerbitzuen arauen betetzearen arabera.
- 8.2. Ikasle Kontseiluak arau orokor hauen irismena erabakitzeke eskubidea izango du arau hauek gaizki-ulerturen bat sortuko balukete, betiere erabaki hauek bidezkoak eta berdintasunezkoak direla bermatuz.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 13 del Reglamento UE 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, le informamos que sus datos pasan a formar parte de un fichero responsabilidad de la UPV/EHU, así como de los siguientes extremos:

Código del tratamiento	TG0029
Nombre del Tratamiento	CONSEJO DE ESTUDIANTES EIB
Responsable del tratamiento de datos	Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Finalidad del tratamiento de datos	RECOGEMOS DATOS DE LOS ALUMNOS PARA PODER CONCEDER ACCESO AL BANCO DE APUNTES DEL CONSEJO. DE ESTA FORMA NOS ASEGURAMOS EVITAR EL ACCESO NO AUTORIZADO AL BANCO. LOS DATOS TAMBIÉN SERÁN USADOS A LA HORA DE EFECTUAR LAS RESERVAS DE LAS TAQUILLAS. LOS DATOS DE LA RESERVA DE LAS TAQUILLAS SERÁN LOS INDICADOS EN LA WEB A LA HORA DE HACER LA RESERVA Y LOS RECOGIDOS EN PAPEL A LA HORA DE FIRMAR EL CONTRATO DE ALQUILER DE LAS TAQUILLAS EL CUAL SERÁ CUMPLIMENTADO POR EL ARRENDATARIO.
Legitimación del tratamiento de datos	<ul style="list-style-type: none"> - Consentimiento de las personas interesadas - Consentimiento de las personas interesadas - Necesario para la ejecución de un contrato en el que la persona interesada es parte, o para la aplicación, a petición de éste, de medidas precontractuales
Destinatarios de cesiones y transferencias internacionales de datos	No se cederán datos salvo previsión legal No se efectuarán transferencias internacionales
Derechos	Acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, como se explica en la información adicional
Información adicional	<p>Disponible en http://www.ehu.eus/babestu</p> <p>Información completa de este tratamiento en: http://go.ehu.eus/C2TG0029</p>

KUTXATILA BATEN ESKURATZEA PERTSONA INTERESDUNAK ARAUTEGI HONEN AGERI DIREN ARAU ETA BALDINTZAK ONARTZEN DITUELA ESAN NAHI DU. ARAU HAUEK EZ EZAGUTZEA EZ DU ARAU HAUEK BETETZETIK SALBUESTEN.

KUTXATILAK ESKURATZEKO ETA BERRITZEKO KONTAKTU DATUAK

PERTSONA INTERESDUNA:

Izena:	Abizena:

Kutxatilaren zenbakia:

MAILEGUAREN DENBORALDIA (Erantzun zuzena inguratu): LAUHILABETEKOA / URTEBETEKOA

***KUTXATILA BATEN ESKURATZEA PERTSONA INTERESDUNAK ARAUTEGI HONEN AGERI DIREN ARAU
ETA BALDINTZAK ONARTZEN DITUELA ESAN NAHI DU. ARAU HAUEK EZ EZAGUTZEAK EZ DU ARAU
HAUEK BETETZETIK SALBUESTEN.***

Pertsona interesdunaren sinadura:

--

JUSTIFIKANTEA

Ni, _____, _____ NAN zenbakiduna, ezin naiz pasatu kutxatilen entrega/itzultzea egitera Ikasle Kontseiluak zehaztutako epean. Beraz, baimena ematen diot _____-ri, _____ NAN zenbakiduna, nire leihatilaren entrega/itzulketara joan dadin zehaztutako epean, **giltzarrapo propioarekin**. Gainera, pertsona ordezkariak dokumentu guzti hau (kontratua eta justifikantea) nire sinadurarekin ekartzeko konpromisoa hartzen du. Nolanahi ere, kutxatilaren erantzulea pertsona interesduna izango da, eta ez izendatutako ordezkaria.



Pertsona Interesduna/Erabiltzailearen Sinadura



Pertsona Ordezkariaren Sinadura